

UDALAREN ERAKETA AKTA

Parte hartzen duten zinegotziak:

EAJ-PNV/EA talde politikoetako hautatuak:

Felix Urkola Iriarte jauna
Igor Sarriegi Zumarraga jauna
Inazio Estensoro Eskisabel jauna
Xanet Barreras Jauregi jauna
Arantxa Zumelaga Agirre anderea
Ignacio Barandiaran Aldasoro jauna
Amagoia Naldaiz Mingo andrea
Kepa Goenaga Alikostes jauna
Xabier Arrasate Aierbe jauna

PSE-EE talde politikokoa:

Juan Manuel Serna Portugal jauna
Alejandro Crespo Blanco jauna

PP talde politikokoa:

Angel Olaso Villalba jauna

Lazkaoko Udaletxeko Areto Nagusian, bi mila eta hiruko ekainaren hamalauan eguerdiko hamabietan bildu dira lehen deialdian, joan den maiatzaren hogeita bostean egindako udal hauteskundeetan aukeratuak izan eta alboan zerrendatuta agertzen diren zinegotzi hautatuak.

Gorka Lamy Insausti jauna, EAJ-EA talde politikoko zinegotzi hautatua, ez da etorri.

Idazkari lanetan Lazkaoko Udaleko idazkari akzientala den Izaro Gurrutxaga Auzmendik dihardu.

Idazkariak adierazten du batzarraldi honen helburua Udalaren eraketa dela, horrela martxoaren 13ko 8/1.991 Lege Organikoak aldatutako Hauteskunde Orokorretako Lege Organikoaren 195.1 artikulua eta Udal Korporazioetako Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduari 37.1 artikulua agindutakoa betez, ondoko gai zerrendaren arabera:

- Korporazioa eratzea.
- Alkatea aukeratzea eta karguaren jabe egitea, kasua balitz.

Idazkari akzidentalak batzarraldiari hasiera eman ondoren, Adineko Mahaia osatzen da, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatutako Hauteskunde Orokorren Erregimenari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 195.2 artikuluan aurrikusitakoa betez. Mahai hori Angel Olaso Villalba zinegotziak burutzen du, zinegotzi zaharrena izateagatik, eta Xanet Barreras Jauregi izango da mahaiko beste partaidea, zinegotzi gazteena dena. Idazkari gisa berriz Udalekoa den Idazkariak ihardungo du.

Mahaiko idazkariak alde aurretik berari entregatutako kredenzial guztiak banan banan irakurtzen ditu, Zinegotzi hautatuen nortasuna kreditatzen dutenak, eta Mahaikideek kredenzial horiek egiaztatu ondoren, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak Udaletxe honetara bere garaian bidali zituen ziurtagiriekin bat datozela ikusten da.

...///...

...///...

KORPORAZIOAREN ERAKETA.-

Aurreko operazioak egin ondoren eta kontuan izanik batzarraldi honetara Gorka Lamy jauna ezik hautatuak izan diren gainontzeko Zinegotzi guztiak etorri direla, hau da, gehiengo absolutu legala, Adineko Mahaiko Buruak karguaren jabetza ematen die etorri diren zinegotzi hautatuei, alde zuzenetik legezko tramite guztiak bete ondoren eta Korporazioa formalki eratua aitortzen du.

Gorka Lamy Insausti jaunaren kargu-hartzea egiteke gelditzen da.

ALKATEA AUKERATZEA.-

Idazkariak bertan daudenei adierazten die martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoaren bidez aldatutako Hauteskunde Orokorren Erregimenari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196 artikuluan xedatzen denaren arabera, Korporazioa eratu den batzarraldi berdinean aukeratu behar dela Alkatea ere, lege horretan ezarritako prozedurari jarraiki:

- Hautagai zerrendaburu diren zinegotzi guztiak dira.
- Hautesle bertan dauden zinegotzi hautatu guztiak dira.
- Aukeraketa txartel sekretu bidez egingo da, botazio bakarra eginez.
- Botuen gehiengo absolutu legala lortzen duen hautagaia izango da hautatua, beraz, gutxienez 7 botu beharko dira.
- Botazio honetan gehiengo absolutua hautagaietako inork lortzen ez badu, automatikoki, botu kopururik handiena lortu duen zerrendako buru den zinegotzi hautatua aldarrikatuko da Alkate. Berdinketa gertatuz gero, zozketa bidez ebatziko da.

Txosten honen ondoren eta gai honi buruz ditugun aurrekinetan oinarrituz, ondoko zinegotzi hautatuak izendatzen dira alkategai:

Felix Urkola Iriarte jauna., EAJ-PNV/EA alderdietako zerrendaburu dena.
Juan Manuel Serna Portugal jauna, PSE-EE zerrendaburua dena.
Angel Olaso Villalba jauna, PP alderdiko zerrendaburu dena.

Angel Olaso Jaunak adierazten du ez dela Alkatetzara aurkezten.

Idazkariak zinegotzi bakoitzari txartel zuri bat ematen dio, txartel bakoitzean Alkatetarako bozketatzen duen zinegotziaren izen-deiturak jarri behar dituela eta txartela tolestatuta entregatzeko adieraziz, eta izkutuko bozketari ekiten zaio.

Behin txartel guztiak jaso ondoren, botuen kontaketa egiten da, honako emaitzarekin:

Felix Urkola Iriarte Jaunak, 9 botu
Juan Manuel Serna Portugal jaunak, 3 botu

...///...

...///...

Botazio honen emaitza ikusirik, Felix Urkola Iriarte jauna zinegotzi hautagaia aldarrikatzen da Udal honetako Alkate, hautagai hau izan delako botuen legezko gehiengo osoa lortu duena.

Jarraian, Felix Urkola Iriarte Zinegotzi Jaun hautatuak Udal honetako Alkate kargua onartu egiten duela adierazten du eta, hauteskunde legeriak ezarritako formularen arabera betekizunak egin ondoren, karguaren jabetza hartzen du edukitza hau ematen dion Korporazio Osoaren aurrean, edukitza horrek barnean hartzen dituelarik indarrean dauden xedapenek ematen dizkioten prerrogatiba, eskubide eta obligazio guztiak.

Ondoren, Idazkariak Udal Batzarrari adierazten dio eta hau jakinaren gainean gelditzen da, zinegotzi hautatu guztiek egin dutela ondare ondasunen aitortpena.

Era berean Idazkariak Udal Batzarrari adierazten dio eta hau jakinaren gainean gelditzen da, zinegotzi hautatu guztiek egin dutela dagokien balizko bateraezintasun kausei eta iharduerei buruzko aitortpena.

Jakinazten du, baita ere, aitortpen horiek inskribatuak izan direla horretarako gaitu diren Erregistroetan.

Alkateak amaitutzat ematen du Udal Korporazioaren eraketa ekitaldia bertaratu diren guztiei eskerrak emanez, eta batzarraldia Akta honen buruan esandako egunean eguerdiko hamabi terdietan bukatzen da, nik, idazkari akzidentalak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.